

Pio Aranguren

- ◆ Ikaztegietan jaio zen 1862/02/07an.
- ◆ Abaltzisketan (apaiz laguntzaile zela) hil zen 1914/ 05/09an.
- ◆ 1899an, errepide berria zela eta, gurutze-bidea hondatua zegoen, eta konpontzeko, dirua eman zuen, beste batzuekin batera, 106 erreal (Seminarioan, 1009/001-00).
- ◆ Honako obra hauek konposatu zituen:

Ave María	Tisolo/órg o Ti/p
Parce mihi a solo de bajo	Bsolo/órg
Taedet	Bsolo/órg

Etincarnatus (despacio)
Sanctus (largo)
Misa de Requiem (A la memoria de mi padre)
Misa de Requiem a 3 voces
Invitorio a 4 voces y Organo

Jose Mari Ibarbia Garmendia

- ◆ Frantziskotarra. Organista, konpositorea eta abesbatzen zuzendaria.
- ◆ Abaltzisketan jaio zen 1928ko azaroaren 2an. Aita “praktikantea” zuen eta 8 senideetatik zaharrena zen.
- ◆ Hamar urterekin joan zen Arantzazuko Ikastetxera, eta han hasi zituen apaiz izateko eta musikako ikasketak.
- ◆ Musika Iturralderekin eta Agirrerekin ikasi zuen, lehenengo.
- ◆ Fraile eginda (1952ko martxoaren 8an), Zarautza joan zen, eta han, harmonia eta konposizioa ikasi zituen, Donostiako kontserbatorioan, Franzisko Eskudero maisuarekin.
- ◆ Ikasketak osatu asmoz, Madrila joan zen, eta han Calés, Sopena, Julio Gómez, Arambarri eta beste maisu batzuekin ikasi zuen, eta, Jesús Guridi maisuak irakatsita, **organoan** espezializatu zen.
- ◆ 1957an Organo Ikasketa amaierako Sari Berezia lortu zuen.
- ◆ Oliteko Franziskotarren Filosofiako Seminarioan musikako irakaslea eta kapera maisua izan zen.
- ◆ 1957an *Orfeón Olitense* sortu zuen, eta hamar urtez izan zen zuzendaria; arrakasta handia izan zuen hainbat lekutan: Gasteiz, Santander, Iruñea, Bilbo, Donostia, Zaragoza, Bartzelona, Madril, etab.
- ◆ Hainbat disko ere grabatu zituen, eta Telebistan ere egin zituzten emanaldiak.
- ◆ Lumbrerasen (Iruñeko Kontserbatorioko irakaslea) *Itxasoko Donosti* poema sinfonikoa prestatu zuen Orfeoiarekin, eta Bello-Portu maisuak zuzenduta, Iruñean estrenatu zuten, munduko pilota txapelketak zirela eta, 1963ko irailean.
- ◆ Jose Mari Ibarbiak organo-kontzertu arrakastatsuak eman zituen, 1958an Arantzazun (programak bi zati zituen, eta bigarrenean Jesus Guridi maisuak jo zuen), Iruñean, Madrilan eta Santanderko katedralean 1967ko martxoaren 21ean, Astearte Santu egunean.
- ◆ Guztietan arrakasta izugarria lortu zuen, sentsibiltate artistiko handikoa baitzen, organoa ondo menperatzen zuen, erregistroak ederki erabiltzen zituen eta argitasun ezin hobeaz espresatzen zen.
- ◆ Santanderra joan behar zuela eta (1967), *Orfeón Olitensek* omenaldi hunkigarria egin zion eta, egindako lana eskertuz, diploma bat eman zion; hala ere, zenbaitetan itzuli zen orfeoia zuzentzera, hark hala eskatuta.
- ◆ Ibarbiak zenbait obra konposatu zituen, egungo liturgiarako egokiak zirenak eta salmoak, koruak kantatzeko antfinak, etab. harmonizatu ere egin zituen.
- ◆ Santanderreko Santa Maria de los Angeles elizako organista izan zen eta hiriaren izena zuen Orfeoia ere sortu zuen.
- ◆ 1985eko azaroaren 28an hil zen, Santanderren.

Iturriak: Euskor 12.; LUR entziklopedia; Auñamendi entziklopedia; familiakoen (Teresita) informazioa.